

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Irail'aren ogeita amarrean, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Lhande, Etxegarai, Elissalde, Zamarripa, Irigarai, Etxaide, Krutwig, Seminario ta Oleaga Euskaltzain jaunak il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin ondoren, lenaurreko batzarren agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo Krutwig jaunak, lenaurreko batzarrean beregain utzitako txostena ger-tu dabela dino ta berau irakurten dau, itzez azalpen ta geigarri batzuk ezarriaz.

Arreta aundiz entzun da bere lan goragarri ori ta berton agertzen dituan asmoak arduraz ta zeazki azterturik, oraingoz ta aobatez auxe erabagiten da:

– Aurrerantzean, Euskaltzainak amazortzi izan daitezala.

– Kopuru au betetako euskaltzaintzat urrengo jaun onek artzea: Pierre Lafitte, René Lafon, Jean Saint Pierre, Louis Dassance ta Manuel Lekuona.

– Henri Gabel deduzko euskaltzaintzat artzea, ta beste euskaltzainak bezala batzarretara deitzea.

Krutwig jaunaren txostenak dakarzan beste asmo batzuri dagokezan eraba-giak, geroagorako uzten dira. Eta artean Euskaltzaindiaren esker sutsuak emoten dakoz Krutwig jaunari bere lan goragarriaren ordain.

Gero adierazoten da Euskaltzaindiak beregaingo ardura ta eralketak betetako lain, orainarteko laguntza ta soroskiak naikoa etxakozala-ta, eurok geiagotu ta barriak eskatu bearren dagoala. Orretarako bear diran eskariak egitea erabagi da. Berau dala-ta, emendio barriak lortu arte, orain emon oi dan batzar-saria utsean bego.

Erdera-euskera iztegiaren lana darabilan Batzordeko euskaltzainak yakinaraz-ten dabe lan ori aurrera doala ta "f" izkia amaituta dagoala. Gai oneri buruz, Euskal-tzaindiaren barrizkuntzea guztiz amaituarte aitaturiko iztegi-lanak geldi dagozala erabagi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarri amaiera.

*Euskaltzainburua*  
Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkue

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga